

Prentsa oharra

Nota de prensa



Lesbos uhartean Zaporeak GKEko kideek jasandako eraso dela-eta, erakunde adierazpena

Atzo, errefuxiatuen alde lanean ari diren Zaporeak Gobernu Kanpoko Erakundeko hainbat kidek faxista taldeen eraso jasan zuten Greziako Lesbos uhartean.

Horregatik guztiagatik, Donostiako Udalak honako hau erabaki du:

1.- Donostiako Udalak erabateko irmotasunez gaitzesten du Zaporeak Gobernu Kanpoko Erakundeko boluntarioen kontra faxista taldeek egindako eraso.

2.- Donostiako Udalak babesa eta elkartasuna adierazi nahi die Lesbos uhartean eraso jasandako herritarrei eta Zaporeak-eko zein Grezian errefuxiatuen alde lanean ari diren Gobernu Kanpoko Erakundeetako kideei. Era berean, babes juridiko eta soziala eta laguntza eskainiko die Grezian faxista taldeek erasotutako donostiarrei.

3.- Donostiako Udalak faxismoaren eta arrazakeriaren kontrako bere konpromisoa berresten du. Ildo honetatik, babesa adierazten die faxismoaren, xenofobiaren eta bestelako intolerantzia moduen aurka borrokatzen duten gizarte zibileko kolektibo eta erakundeei.

4.- Donostiako Udalak asilo politika berri bat eskatzen dio Europar Batasunari, giza eskubideetan, justizian eta elkartasunean oinarritua, eta horretarako, neurri eraginkor eta koherenteak har ditzala.

Donostia, 2020ko martxoaren 3an